Abadiño
Elizateko Udala

GIZARTE PREMIAK ANTZEMATEKO ETA SUTEAK AURREIKUSTEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE DETECCION DE NECESIDADES SOCIALES Y PREVENCIÓN DE INCENDIOS

Espediente zenbakia: 2026-00418

Núm. Expediente: 2026-00418

Arlo Arduraduna: Gizarte Ongizate Arloa

Área Responsable: Área de bienestar social

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen xedea da etxeetan gizarte-premiak antzemateko eta suteak prebenitzeko zerbitzua ematea Abadiñon bizi diren pertsonei, zehazki 80 urtetik gorako eta bakarrik bizi diren pertsonei edo, bakarrik bizi ez arren, 80 urtetik gorako pertsonekin bizi direnei, edota Udaleko Gizarte Ongizate Sailak zehazten dituen beste arrisku-egoera batzuetan daudenei.

Halaber, kontratuaren xede izango dira aurreko urteetatik martxan dauden sute-detektagailuak berrikustea, bateria aldatzea, behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea eta behar sozialak berrikustea.

2. HELBURUAK

- Etxebizitza seguruagoak eskaintzea, etxebizitzetan sute-arriskuko fokuak identifikatuz.
- Autonomia galtzeko arriskua duten egoerak identifikatzea eta asetzen ez diren adinekoen behar psikosozialak detektatzea.
- Sute baten aurrean erreakzionatzeko denbora murriztea
- Beharrezkoa izanez gero, etxetik ateratzeko erraztasunak ematea. Etxebizitzaren krokisak ebakuazioa azkartzen lagunduko du.

1. OBJETO DEL CONTRATO

Constituye objeto de la presente licitación la prestación del servicio de detección de necesidades sociales y prevención de incendios en los domicilios de las personas mayores de 80 años que vivan solas o acompañadas de personas de 80 años en el municipio de Abadiño u otras situaciones de riesgo que desde el Área de Bienestar Social del Ayuntamiento se determine.

Así mismo constituirá objeto del contrato la revisión de los detectores de incendios en funcionamiento desde años anteriores, la sustitución de su batería, la comprobación de su correcto funcionamiento y realizar la revisión de las necesidades sociales.

2. OBJETIVOS

- Facilitar hogares más seguros mediante la identificación de focos de riesgo de incendios en las viviendas.
- Identificar situaciones de riesgo de pérdida de autonomía y detectar necesidades psicosociales de las personas mayores no satisfechas.
- Reducir los tiempos de reacción ante un incendio
- Facilitar la evacuación del domicilio, si fuera necesario. Los croquis de la vivienda permitirán la evacuación más rápida

- Adin-tarte horri buruzko informazio demografiko berrikusia eta eguneratua izatea.

- Disponer de información demográfica revisada y actualizada relativa a este segmento de edad.

3. HARTZAILEAK

Abadiñon bizi diren 80 urtetik gorako pertsonak, baldin bakarrik zein 80 urtetik gorako pertsonekin bizi badira.

Halaber, kalteberatasun-egoeragatik Abadiñoko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak edo Gizarte Ongizateko teknikariak horrela irizten dienak ere izan daitezke zerbitzuaren hartzaileak.

3. PERSONAS DESTINATARIAS

Las personas mayores de 80 años que residan en Abadiño, siempre que vivan solas o acompañadas por personas mayores de 80 años.

También podrán ser destinatarias del servicio aquellas que por su situación de vulnerabilidad así lo considere el Servicio Social de Base o la técnica de Bienestar Social del ayuntamiento de Abadiño.

4. ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK

- Etxeetan suteen aurkako detektagailuak jartzea.
  Suteen aurkako ke-detektagailuen ekipoek ezaugarri tekniko hauek izan behar dituzte:
  - Errekuntza-produktuekiko sentikorra den detektore optikoa, ikusgaia zein ikusezina.
  - Edozein su- edo ke-mota eta, bereziki, hasiberriak direnak detektatzeko gauza izanbehar da.
  - Behin detektatuta, detektagailuak seinale bisual eta akustiko bat egin behar du erabiltzailea ohartarazteko.
  - Europako araudia beteko dute
  - Detektagailuen bateriak 9 V alkalinokoak izan behar dira**.**

- Gorabehera guztiei doan eta ahalik eta azkarren erantzutea.

- Ebakuazioa errazteko behar den krokisa egitea

4. SERVICIOS A PRESTAR

- Instalar detectores contra incendios en los domicilios.
  Los equipos de detectores de humo contra incendios deben reunir las siguientes características técnicas:
  - Detector de humo óptico sensible a los productos de combustión, tanto visible como invisible.
  - Debe estar preparado para la detección de todo tipo de fuegos o humos y especialmente aquellos que se encuentren en su estado incipiente
  - Una vez detectados, el detector debe emitir una señal visual y acústica para alertar a la persona usuaria
  - Deberán cumplir la normativa europea
  - Las baterías de los detectores deberán ser de 9 V alcalinas.

- Responder gratuitamente y a la mayor brevedad a todas las incidencias.

- Elaborar el croquis necesario para facilitar la evacuación

- Etxebizitza horietan bizi diren pertsonen behar sozialak eta bakardade egoerak aztertzea:
    - elkarrizketa pertsonalak egitea (elkarrizketa horiek egiten dituen pertsonak Gizarte Laneko Diplomatura edo Gradua izan behar du).
    - etxe bakoitzeko txosten sozial bat lantzea.
    - Eskatutako helbide guztiak jasoko dituen azterketa-txosten bat lantzea.
    - Zaurgarritasun sozialeko egoeraren bat edo bete gabeko behar sozialen bat detektatuz gero, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileari eta Udaleko Gizarte Ongizateko teknikariari jakinarazi behar zaie, egokitzat jotzen dituzten neurriak har ditzaten.

Aurreko urteetan jarritako detektagailuen mantentze-lanak egitea. Mantentze-zerbitzuaren barruan sartzen da:
- ondo dabilela egiaztatu
- artekak garbitu
- pilak aldatu (9V eta alkalinoak)

Gizarte-beharren eta bakardade-egoeraren azterketa egin. Horretarako, elkarrizketa egingo dute eta txosten soziala eta txosten-azterketa prestatuko dituzte).

5. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Udalak adierazitako etxebizitzetan jarriko dira gailuak, eta, horretarako, enpresa esleipendunari pertsona onuradunen zerrenda emango zaio.

- Analizar las necesidades sociales y situaciones de soledad de las personas residentes en estas viviendas:
    - Realizar entrevistas personales (la persona que realiza estas entrevistas deberá estar en posesión de Diplomatura o Grado en Trabajo Social).
    - Elaborar un informe social por cada uno de los domicilios.
    - Elaborar un informe-estudio que englobe a la totalidad de los domicilios visitados.
    - En caso de detectar una posible situación de vulnerabilidad o alguna necesidad sociales no satisfecha, deberá ponerse en conocimiento de la trabajadora social de los Servicios Sociales de Base y de la técnica de Bienestar Social del propio Ayuntamiento, para que puedan adoptar las medidas que consideren oportunas.

- Prestar servicio de mantenimiento de los detectores instalados en años anteriores. El servicio de mantenimiento incluirá:
    - La comprobación del buen funcionamiento
    - Limpieza de las ranuras
    - Cambio de pila de los detectores de humo (9V y alcalinas)

Realización del análisis de las necesidades sociales y la situación de soledad. Para ello, realizarán la entrevista, elaborarán el informe social y el informe-estudio).

5. CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO

Los dispositivos de instalaran en las viviendas que señale el ayuntamiento, a cuyo efecto se facilitara a la empresa adjudicataria una lista de personas beneficiarias.

Udalak erroldatik abiatuta egingo du zerrenda, eta esleipenduna zerrendako pertsonekin harremanetan jarriko da zerbitzua eskaintzeko.

Gizarte beharren azterketa egiteko galdetegia udaletxean aurkeztuko da, etxeetan erabili aurretik.

Galdetegia aldatu ahal izango da udalak egoki iritzitako puntuetan.

Udalak esleipena egin ondoren, esleipendunak hilabeteko epea izango du zerbitzua emateko, kontratua sinatzen den egunetik hasita.

El ayuntamiento elaborará el listado a partir del censo y la adjudicataria se pondrá en contacto con las personas de la lista para ofrecerles el servicio.

El cuestionario para la realización del estudio de las necesidades sociales será presentado al ayuntamiento antes de utilizarlo en los domicilios.

El cuestionario podrá ser modificado en aquellos puntos que el ayuntamiento considere conveniente.

Una vez realizada la adjudicación por el ayuntamiento, la adjudicataria tendrá un plazo de 1 mes para la prestación del servicio, a partir de la fecha de firma del contrato.

6. KONTRATUA BETETZEKO GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Esleipendunak baliabide material eta langile egokiak izan behar ditu, kopuru eta kualifikazio profesionalekoak, kontratatutako zerbitzuak behar bezala emateko. Orobat bete behar ditu indarrean dagoen eta une bakoitzean aplikatzekoa den legedian eta araudian ezarritako baldintza material eta funtzionalak.

Bizkaiko Gizarte Esku-hartzearen Sektoreko Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoa beteko da.

6. RECURSOS HUMANOS Y MATERIALES PARA LA EJECUCION DEL CONTRATO

La entidad adjudicataria que estará obligada a disponer de medios materiales y del personal adecuado, con número y en cualificación profesional, para garantizar la adecuada prestación de los servicios contratados, quedando obligada a cumplir los requisitos materiales y funcionales establecidos en la legislación y normativa vigente y de aplicación en cada momento.

Se atendrá a lo estipulado en el Convenio Colectivo Sectorial de Intervención Social de Bizkaia.

7. HIZKUNTZA-BETEKIZUNAK

Esleipendunak bermatu beharko du zerbitzua EAEko bi hizkuntza ofizialetan eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren barruan ematen dela. Horretarako, zerbitzuaren hizkuntza izango da erabiltzaileak aukeratzen duena, beti ere euskararen erabilera bultzatuz.

7. REQUISITOS LINGUISTICOS

La entidad adjudicataria deberá garantizar la prestación del servicio en los dos idiomas oficiales de la CAPV y dentro del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas. A tal fin, el idioma del servicio será aquel que la persona usuaria elija, impulsando siempre el uso del euskera.

Por ello, se prevé seguir las siguientes pautas tanto en las comunicaciones orales como escritas:

- Harrera-hizkuntza euskara izango da, eta erabiltzaileak hautatutako hizkuntzan jarraituko da.

- Zerbitzu hau emateko erabiltzen diren idatzizko elementu guztiak (inprimakiak, jakinarazpenak, oharrak, seinaleak, errotuluak, azalpenak, publizitatea...) bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, eta euskarari lehentasuna emango zaio, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean euskara indartzeko zehazten diren neurrien arabera.

- Komunikazio guztiak, idatziak zein ahozkoak, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Egindako lanaren ondorioz Udalari ematen zaion dokumentazio guztia EAEko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztuko da: euskaraz eta gaztelaniaz, eta formatu digitalean eta paperean.

- La lengua de acogida será el euskera y se seguirá en la lengua elegida por la persona usuaria.

- Todos los elementos escritos utilizados para la prestación de este servicio (impresos, notificaciones, notas, señales, rótulos, explicaciones, publicidad...) se redactarán en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera, de acuerdo con las medidas de acentuación del euskera definidas en el Plan de Acción para la promoción del euskera.

- Todas las comunicaciones, tanto escitas como orales, se realizarán en euskera y en castellano.

Toda la documentación que se entregue al Ayuntamiento como consecuencia del trabajo realizado se presentará en los dos idiomas oficiales de la CAPV: euskera y castellano, y en formato digital y en papel.

8. GENEROAREN INGURUKO BETEKIZUNAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Eraso Matxistarik gabeko Bizitzarako 1-2022 Legearen 21. artikuluak ezartzen duen bezala, zerbitzu horretan genero-ikuspegia sartzea kontratuaren xedearen ezaugarri tekniko bat da.

Beraz, genero-ikuspegia une oro egon beharko da presente kontratatutako lana egiten den bitartean.

Erabiltzen den dokumentazio guztian hizkuntza ez-sexistaren irizpideak aplikatu beharko dira.

8. REQUISITOS EN CUANTO A GÉNERO

Tal y como establece el artículo 21 de la Ley 1-2022, para la igualdad de mujeres y hombres y vida libre de agresiones machistas contra las mujeres, la integración de la perspectiva de género en la prestación de este servicio constituye una característica técnica del objeto del contrato.

Así pues, la perspectiva de género deberá estar presente en todo momento durante la ejecución del trabajo contratado.

En toda la documentación utilizada se deberán aplicar los criterios de lenguaje no sexista.

9. EPEA

Kontratuaren iraupena lau (4) urtekoa izango da, kontratua formalizatu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

9. PLAZO

La duración del contrato será de cuatro (4) años a contar desde el día hábil siguiente a la formalización del contrato.

10. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa esleipendunak betebehar hauek izango ditu:

- Abadiñoko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak deitutako batzarretara joatea.
- Berehala ematea zerbitzua eskaintzean gertatzen diren gorabehera guztien berri.
- Abadiñoko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak ezarritako arauak betearaztea.
- Sor daitezkeen gorabeherak kudeatzea.

10. OBLIGACIONES DE LA ADJUDICATARIA

La empresa adjudicataria deberá cumplir con las siguientes obligaciones:

- Acudir a cuantas reuniones le sean convocadas por el Área de Bienestar Social del Ayuntamiento de Abadiño.
- Dar cuenta inmediata de cuantas incidencias se produzcan en la prestación del servicio.
- Hacer cumplir las directrices marcadas por el Área de Bienestar Social del Ayuntamiento de Abadiño.
- Gestionar las incidencias que puedan surgir.

11. UDALAREN BETEBEHARRAK

- Kontratuaren prezioa aurreikusitako epeetan ordaintzea, entitate kontratistak faktura epean bidali ondoren.

11. OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO

- Abonar el precio del contrato en los plazos previstos, previa emisión en plazo de factura por parte de la entidad contratista.

Abadiñon, sinadura digitalaren datan

En Abadiño, a fecha de firma digital

GIZARTE ONGIZATE ARLOKO TEKNIKARIA
LAURA SANCHEZ ARRIBAS